ÁREA DE INFRAESTRUCTURAS Y MEDIO AMBIENTE

PROGRAMA PROGRAMA	AZPIKONTZEPTUA SUBCONCEPTO	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKOA IMPORTE
5132	23899	EAEko trenbide-sare berriko eraikuntza-proiektuak ("Euskal Y"), Gipuzkoan Proyectos constructivos de la N.R.F.P.V. ("Y Vasca") tramo Gipuzkoa	305.000
5142	43900	Hitzarmena RENFErekin, Gasteiz-Altsasu tarterako Convenio con RENFE. Vitoria-Alsasua	105.143
5142	45100	BIA-Bilboko Aireportuaren Sustapena (Loiu) BIA-Promoción Aeropuerto de Bilbao (Loiu)	180.058
5142	45100	VIA-Forondako Aireportuaren Sustapena VIA-Promoción Aeropuerto de Foronda	90.000
5142	82111	Donostiako Aireportua Aeropuerto de Donostia	40.000
5151	45499	Gipuzkoako Gurutze Gorriarentzako dirulaguntza Subvención Cruz Roja Gipuzkoa	106.000

PROGRAMA PROGRAMA	AZPIKONTZEPTUA SUBCONCEPTO	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKOA IMPORTE
5151	45499	Bizkaiko Gurutze Gorriarentzako dirulaguntza Subvención Cruz Roja Bizkaia	106.000
5151	62321	Gipuzkoako itsas-salbamenduko ekipoak Equipos salvamento marítimo Gipuzkoa	21.000
5151	62321	Bizkaiko itsas-salbamenduko ekipoak Equipos salvamento marítimo Bizkaia	21.000
5512	HAINBAT VARIOS	Meteorologia eta Klimatologia (Programa osoa) Meteorología y Climatología (Programa completo)	5.102.846
		GUZTIRA TOTAL	6.077.047

KULTURA ARLOA

ÁREA DE CULTURA

PROGRAMA PROGRAMA	AZPIKONTZEPTUA SUBCONCEPTO	DESKRIBAPENA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKOA IMPORTE
4513	23899	Zinema euskaraz kanpaina Campaña de cine en euskera	100.000
4513	23899	Ikusentzunezkoen programak Programas audiovisuales	90.000
4513	45100	Donostiako Nazioarteko Zinemaldia Festival Internacional de Cine de San Sebastián	927.000
4513	45200	Euskarazko filmeen estreinaldi eta bikoizketarako dirulaguntzak Subvenciones a doblaje y estrenos cine en euskera	509.169
4513	45200	Nazioarteko ikus-entzunesko merkatuetan parte hartzeko dirulaguntzak Subvenciones para la participación en eventos audiovisuales de carácter internacional	25.800
4513	45401	Euskadiko Filmategia; urteko ekintzak aurrera eramateko dirulaguntza Filmoteca Vasca. Subvención realización actividad anual	350.000
4513	45499	"Antena Media" programaren kudeaketarako dirulaguntza Subvención gestión programa "Antena-Media"	62.315
4513	75200	Filme laburrak egiteko dirulaguntzak Subvenciones a cortometrajes	130.000
4513	75200	Proiektu garapenak egiteko laguntzak Ayudas a desarrollo de proyectos	100.000
4513	75200	Filme luzeak egiteko laguntzak Ayudas a la realización de largometrajes	1.050.000
4513	75300	Gidoiak sortzeko laguntzak Ayudas a la realización de guiones	40.000
4513	82332	Ikus-entzunezkoen ekoizpenaren sustapena Fomento de la producción audiovisual	2.055.000
		GUZTIRA TOTAL	5.439.284

LABURPEN OSOA RESUMEN TOTAL	233.491.943
--------------------------------	-------------

Ikusten denez, beraz, 2006 urtean ere, dagozkion transferentziak gertatzen ez diren artean edo beroien finantza erregularizazioari ekin ezean, Eusko Jaurilaritza, bere eginkizunen jardueran, prest dago hasiera batean aipatutako gabeziek dakarten kostu ekonomiko handiagoa bere gain hartzeko; izan ere, bere ustetan gure autogobernuan sakontzeari aukera ematen dioten ekimenak garatzen jarraitzea beharrezkoa da euskal herritarren ongizatea handitzeko.

Hala ere, Gernikako Estatutuak jasotzen dituen eskumenak oso osorik garatu ahal izateko giza, material eta finantza-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei transferitu ez zaizkenez, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat ezinezkoa da bere Estatutuaren arabera dagozkion finantza-maila eskuratzea.

Ildo horretatik, eskumenak eskualdatzearen eragin ekonomikoek ez dakarte aginpide horiei atxikitako baliabideetan kudeatzailea aldatze hutsa, izan ere Euskal erakundeek jarduteko adierazitako lehenetsunaren arabera, eskumen bakoitzari esleitu beharreko zuzkidurak erabakitzeke gaitasuna ere bere baitan baitakarte.

Hala ere, bere finantza-autonomiaz baliaturik eta bere eskumenak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoak egin lezakeen gastua transferituak izan daitezen eskumen horiek duten kostuaren balioespenarekin parekatzerik ezta parekatu beharrik era bada ere, egia bada halaber, ahalegin ekonomiko horrek ez dakarrela konpentsaziorik Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik benetan bere gain hartu ez dituen eskumenengatik Estatuari egiten dion ekarpenean. Eskumen horiek dira, hain zuzen, osotasunean jardutea bideratzen dituzten baliabideak, hau da giza, material eta finantza baliabideak, oraindik ere transferitzeko dituztenak. Ondorioz, ekarpen horren zebateko ekonomikoak murriztu egin behar luke Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren zebatekoa eta, horrela, zeharka finantzatu, partzialki bada ere, aurreko koadroetan adierazi diren aurrekontu-gastuak.

Transferitzeko dauden eskumenek Kupoan izan dezaketen eragin ekonomikoa arautu gabe dagoenez, Estatuako Aurrekontu Orokorrek Estatu-mailan transferitzeko dauden gaiei esleitzen dieten urteko kostu osoaren arabera zehaztu behar litzateke. Horrenbestez, 2006 urtean ahalegin ekonomiko gehigarria egin beharko da, eta ahalegin hori Estatuako Administrazioak eman behar duen informazioa kontuan hartuta baloratu ondoren, Estatuarekin etorkizunean egin beharreko negoziazioan sartuko da, konpentsatu edo erregulatu beharreko diru-kopuru gisa.

Bestalde, Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren murrizketa ez da euskal erakundeen transferitzeke dauden eskumenak benetan gauzatu ahal izateko ekonomia-ahalmenaren igoerarako elementu erabakigarri bakarra. Kontuan hartu behar dira, baita ere, horiei lotetsitako hainbat diru-iturritatik eratorritako baliabideak.

Hain zuzen ere, eskualdatzeke dauden funtzio eta zerbitzu asko (INEM, FOGASA, INSS, Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa) zerga-sarreraren ordainarazpenaren bitartez (gizarte zerga eta kotizazioak), finantzatzen dira gehienbat. Horien transferentziak asko handituko luke kudeaketarako ahalmena, ez bakarrik gastu publikoaren aldetik, diru-sarreraren aldetik ere baizik.

Como puede observarse, también en el año 2006, por tanto, el Gobierno Vasco, en el ejercicio de su responsabilidad y mientras no se produzcan las correspondientes transferencias o se proceda a su regularización financiera, está dispuesto a asumir inicialmente el mayor coste económico que ello supone ya que estima necesario continuar desarrollando iniciativas que permitan profundizar en nuestro autogobierno para incrementar el bienestar de las ciudadanas y ciudadanos vascos.

Sin embargo, la falta de transferencia a las Instituciones del País Vasco de los medios personales, materiales y financieros para el completo desarrollo de las competencias previstas en el Estatuto de Gernika imposibilita a la Comunidad Autónoma de Euskadi alcanzar el nivel definitivo de financiación que estatutariamente le corresponde.

En este sentido, los efectos económicos de los traspasos de competencias no suponen un mero cambio del gestor de los recursos asociados a las mismas, sino que conllevan la asunción de la capacidad de decidir las dotaciones a asignar a cada una de ellas en función de las prioridades de actuación marcadas por las Instituciones vascas.

No obstante, aunque no puede ni debe equipararse el gasto que, en uso de su autonomía financiera, pueda dedicar la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio de sus competencias con la valoración del coste de las mismas a los efectos de su transferencia, es igualmente cierto que dicho esfuerzo económico no se ve compensado por la aportación que el País Vasco realiza al Estado por dichas competencias aún no asumidas efectivamente, es decir, pendientes del traspaso de los medios personales, materiales y financieros necesarios para su pleno ejercicio. El importe económico de dicha aportación debería reducir, en consecuencia, la cuantía del Cupo a pagar al Estado e, indirectamente, financiar, aunque fuera parcialmente, el gasto presupuestario identificado en los cuadros anteriores.

La falta de regularización del impacto económico en el Cupo de las transferencias pendientes, que se determinaría en función del coste total anual que los Presupuestos Generales del Estado asignan a nivel estatal a cada una de las materias pendientes de traspaso, supondrá durante el ejercicio 2006, por lo tanto, un esfuerzo económico adicional, un esfuerzo que, tras ser valorado en función de la información a suministrar por la Administración del Estado, se incorpore en una futura negociación con el Estado como una cantidad a compensar o regularizar.

Por otro lado, la disminución del Cupo a pagar al Estado no es el único elemento determinante del aumento en la capacidad económica de las Instituciones vascas que supondría la efectiva realización de las transferencias pendientes sino que también deben tenerse en cuenta los recursos que se derivan de las distintas fuentes de ingreso asociadas a las mismas.

En efecto, gran parte de las funciones y servicios pendientes de traspaso (INEM, FOGASA, INSS, gestión del régimen económico de la Seguridad Social) se financian fundamentalmente por la exacción de ingresos fiscales (impuestos y cotizaciones sociales) y su traspaso implicaría una importante ampliación de la capacidad de gestión no sólo desde el lado del gasto público sino también desde la vertiente del ingreso.

The background features a stylized map of the Basque Country in shades of green and yellow. In the lower-left and lower-right corners, there are several Euro coins, also rendered in a light green and yellow color scheme. The text is centered in the lower half of the page.

**III LEGE EGITASMOARI BURUZKO IRUZKINAK
COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL
PROYECTO DE LEY**

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2006KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORREN LEGE-PROIEKTUARI BURUZKO MEMORIA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren zati dira, eta, horregatik, horien izatea Autonomia Estatutuan jasotzen da. Hain zuzen ere, Estatutuaren 44. artikulua hauxe dio: "Euskal Herriko presupostu orokorrek bere barne hartuko dituzte aktibitate publiko orokorraren diru sarrera eta gastuak; Euskal Gobernuak elaboratuko ditu eta Euskal Biltzarrek onartuko, berak ezartzen dituen arauen arabera".

Dena den, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko (testu hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) 1. artikulua ezartzen duenez, aurrekontuak prestatu eta kudeatzeko prozedura Euskal Herriko Ogasun Nagusiari berez dagokion gaietarikoa da.

Helburu horrekin, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko ekainaren 22ko 12/1983 Legea, aurreko egoerarekin alderatuz gero, aurrerapauso bat izan zen; izan ere, lege horrek beste antolara bat eman zien aurrekontu orokorrei eurei, eta baita Aurrekontu Orokorraren Legeei ere, eta aurrekontu-legeen esparrua aurrekontu-erregimen hutsetik baino harantzago zabaldu zuen; hortaz, aurrekontuen legeak, aurrekontu-erregimenaren gaiekin duten zerikusiarengatik, gai horien artean kokatzen diren arren, tresna juridiko bilakatu zituen, helburu ekonomikoak eta sozialak hobeto erdiesteko.

Horrelaxe da, izan ere. Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak edo Euskadiko Aurrekontu Orokorrak honela taxutzen ditu lege horrek: "Euskadiko Autonomia Elkartek ekonomia-urtea edo diruegitamu-urte bakoitzean egituratu beharreko ekonomiazko ekintzarako artezpide diren bateango erabaki-sortaren dirubidetzak eta kontaduritzak-alorreko agiri-bidezko zinezko adierazpide dira", eta, ondoren, hauxe gaineratzen du: "Euskadiko Autonomia-Elkartearen eskuarteak behar bezala erabiltzen direla zaintzeko bidea dira". Hori horrela, Euskadiko Aurrekontu Orokorrak, diru-sarreraren eta gastuen egoeren esparru estua utzita, aurretik ez zuten garrantzia eta autonomia hartzen dute.

Aurrekontuen ikuskera horrekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakundearen aurrekontuak –diru-sarreraren eta gastuen egoerak jasotzen dituzte– Euskadiko Aurrekontu Orokorraren edukiararen zati bat dira; baina, horrek ez du esan nahi Aurrekontu Orokorrak eta erakundearen gauza bera direnik. Euskadiko Aurrekontu Orokorrak eta diru-sarrera eta gastuen egoera hutsak kualitatiboki ezberdinak direnez gero, Aurrekontu Orokorrak egoera horiek ez ezik, berme-prestazioen eta zorpetzearen mugak ere jasotzen dituzte; izan ere, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak ematen dien izaerarekin bat, horiek ere Euskal Autonomia Erkidegoaren jardura ekonomikoaren berezko osagaiak baitira.

Aurrekontu Orokorraren osatura zehaztu ondoren, Zuzenbidearekin uztartzeko beharra egokitzen zaigu; beraz, horixe da, hasiera batean behintzat, Aurrekontu Orokorraren Legea izatearen arrazoia. Hortaz, Lege honen lehendabiziko eginkizuna Aurrekontu Orokorrak onartzea da, hain zuzen ere.

MEMORIA EN RELACIÓN CON EL PROYECTO DE LEY DE PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2006

Los Presupuestos Generales de Euskadi, como parte integrante de la Hacienda General del País Vasco, son enunciados en el Estatuto de Autonomía al disponer en su artículo 44 que "contendrán los ingresos y gastos de la actividad pública general, y serán elaborados por el Gobierno Vasco y aprobados por el Parlamento Vasco de acuerdo con las normas que éste establezca".

El procedimiento de elaboración y gestión presupuestaria, no obstante, tal y como dispone el artículo 1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, constituye una de las materias propias de la Hacienda General del País Vasco.

En este sentido, la Ley 12/1983, de 22 de junio, de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, constituyó un nuevo avance sobre la situación preexistente al dar una diferente ordenación a los Presupuestos Generales y a las Leyes de Presupuestos Generales y ampliar el campo de tales Leyes a otros aspectos diferentes del puro régimen presupuestario, hasta convertirlas en instrumentos jurídicos para el mejor logro de los objetivos económico-sociales, si bien seguían localizadas en la materia de régimen presupuestario, dada su afinidad con la misma.

En efecto, los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o Presupuestos Generales de Euskadi, son configurados por dicha norma como "la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por la Comunidad Autónoma de Euskadi en cada ejercicio económico o presupuestario" y, a su vez, como "el instrumento de control de la correcta administración de los recursos de la Comunidad Autónoma de Euskadi". De esta manera, los Presupuestos Generales de Euskadi adquieren dimensión y autonomía propia, desligándose definitivamente del estrecho marco de los estados de ingresos y de gastos.

De acuerdo con esta concepción, los presupuestos de las entidades que componen la Comunidad Autónoma, constitutivos de los correspondientes estados de ingresos y gastos, forman parte del contenido de los Presupuestos Generales de Euskadi pero sin que ello suponga una identidad de naturaleza entre éstos y aquéllos. Los Presupuestos Generales de Euskadi, como algo cualitativamente distinto de los meros estados de ingresos y gastos, integran en su seno, también, los límites de prestación de garantías y de endeudamiento, por constituir aspectos propios de la actividad económica de la Comunidad, en congruencia con la naturaleza que les atribuye a aquéllos la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Determinada así la configuración de los Presupuestos Generales, surge la necesidad de articularla con el mundo del Derecho, a cuya finalidad responde, en principio, la existencia de la Ley de Presupuestos Generales. Por tanto, el primer cometido de esta Ley es, precisamente, el de aprobar los Presupuestos Generales.

Autonomia-erkidegoaren egoera ekonomikoak berak eta gizartean diren harreman ekonomikoen izaerak, hala ere, gorago zehaztu ditugun Aurrekontu Orokorraren edukiarekin bat ez datozen neurriak hartzerantz bultzatzen dituzte, batzuetan, aginte publikoak. Gainera, Aurrekontu Orokorraren Legearen bertan badira xedapen ugari legearen beraren edukiarekin bat egiten ez dutenak, baina legearen arautzen direnak, agian, aurrekontu-legearen aldikotasuna gogoan izanik, gai horiek eguneratzeko tresna egokia delakoan. Horregatik, hain zuzen, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak, aurrekontuak onartzeko ahalmenaz gain, beste eduki bat ere ematen dio aurrekontu-legeari: "Guztizko Diruegitamuetango diruizendapenei dagozkien lanarien ordainsarien eta gozamsarien jaupideak, horiekiko diruegitamujaurpide eta herri-gastuen egitarapenak, Autonomia-Elkartearen berenezko zergentzako jaupideak eta zorpetze moduak bezala ekonomia-urte hartakoak izan eta horretan berriazko eragina izan dezaten Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren arazoetara eta horri datzekonetara ere iritsi ahal izango dute". Aurreikuspen ireki horiek bat egiten dute beste xedapen batzuek egiten dituzten aurrekontuetarako igorpenekin, eta, batez ere, alor sozio-ekonomikoan izaten diren egoeren aniztasunarekin. Halaber, Aurrekontu Orokorraren Legearen osaera horrekin bat, aurrekontuetan jasotzen diren gaien buruzko arauak, aldaketen legegintza-arauak edo Euskadiko Aurrekontuen Legeak jasotzen dituzten arau osagarriek Aurrekontu Orokorraren Legearen izaera eta erregimen berbera daukate, eta berdin dio zein den dagokien indarraldia, arrunta edo luzatua.

Azken finean, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak Euskadiko Aurrekontu Orokorrarentzat eta Euskadiko Aurrekontu Orokorraren Legeentzat eratu duen sistemak uko egiten dio edozein antolaketa mugatu eta estatikori; hortaz, bere funtzionaltasunak zehaztutako ezaugarriak dinamikotasuna eta malgutasuna dira. Hori horrela, Aurrekontu Orokorraren Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren barne-esparrua gaintu egiten dute, eta politika ekonomikoa egiteko tresna egoki bilakatu dira.

Printzipio horiek gogoan izanik, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginak (testu hori irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) Aurrekontu Orokorrak eta Aurrekontu Orokorraren Legeak arautzea dauka xedetzat, hau da, bertan arautzen dira aurrekontu-legearen edukia, egitura eta egiteko, kudeatzeko, betearazteko eta kitatzeko prozedurak, eta, hala dagokionean, Aurrekontu Orokorraren luzapenaren erregimena. Arauketa horren xede izan daitezkeen beste gai batzuk alde batera utzita, arauketa horrek lortu nahi duena da aurrekontu-tresna bat oso espezializatua erdieste, eta tresna hori, sistema demokratiko eta parlamentario baten informazio-printzipioak gogoan izanik, gauza izan dadila, batetik, Ekonomia Itunaren ondorio diren finantza- eta aurrekontu-berezitasunetan oinarriturik, Euskal Autonomia Erkidegoak duen osaera berezira egokitze, eta, bestetik, Autonomia Estatutuan ezarritakoaren arabera, Estatuarekiko eta lurralde historikoekiko Erkidegoaren eskumen edo zerbitzuen maila aldatzeko aurreikuspena ere egokitze.

Esparru horretan kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2006ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren Lege-proiektua. Lege-proiektuaren testu artikuludunak ere Euskal Autonomia Erkidegoaren aurreko aurrekontu orokorraren legeak ezarri zuten egite-era berari eusten dio. Testuaren egiturari dagokionez, bost tituluk, 32 artikuluk, sei xedapen gehigarrik, lau azken xedapenek eta lau eranskinek osatzen dute legearen testua.

Sin embargo, la propia situación económica del país y la naturaleza de las relaciones económicas existentes en la sociedad, requieren a veces de la adopción de una serie de medidas por parte de los poderes públicos, que no encajan en el contenido de los Presupuestos Generales delimitado anteriormente. Además, existen multitud de disposiciones que reenvían a las Leyes de Presupuestos Generales la regulación de una serie de materias no comprendidas en el contenido de éstos, en la idea, quizá, de que dada la temporalidad de dichas Leyes, constituyen un instrumento adecuado para una actualización permanente. Por todo ello, la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco atribuye a las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi otro contenido, diferente al de la mera aprobación de los mismos, de manera que puedan "extender su objeto a la regulación de otra serie de cuestiones propias de la Hacienda General del País Vasco o relacionadas con ésta, tales como el régimen de las retribuciones del personal y de los haberes pasivos correspondientes a los créditos pertenecientes a los Presupuestos Generales, el régimen presupuestario y de ejecución del gasto público de los mismos, el régimen de los tributos propios de la Comunidad Autónoma, y el de las condiciones de endeudamiento", lo que constituye una previsión abierta en consonancia con las remisiones de otras disposiciones y, sobre todo, con las múltiples circunstancias concurrentes en el campo socio-económico. Asimismo, en consonancia con tal configuración de las Leyes de Presupuestos Generales, las normas referentes a dichas materias, contenidas en aquéllas, así como las normas legislativas de modificación o complemento de las contenidas en las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi, con independencia de cual sea el período de vigencia, ordinario o prorrogado, en que incidan, tienen la misma naturaleza y régimen que éstas.

En definitiva, el sistema configurado por la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco para los Presupuestos Generales de Euskadi y las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi escapa a cualquier configuración encorsetada y estática, para disponer de la flexibilidad y dinamicidad como características propias determinadas de su funcionalidad, constituyendo un instrumento combinado que trasciende el ámbito interno de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma para convertirse en una herramienta idónea de política económica.

Partiendo de tales principios, el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, tiene por objeto establecer una regulación propia de los Presupuestos Generales y de las Leyes de Presupuestos Generales, del contenido, estructura, procedimiento de elaboración, gestión y ejecución, liquidación y, en su caso, régimen de prórroga, de los mismos, una regulación que, al margen de la de otras materias que pueden constituir su objeto, persigue la consecución de un aparato presupuestario propio y altamente especializado, teniendo en cuenta los principios informantes de un sistema democrático y parlamentario, y que se ajusta tanto a la especial configuración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, basada en las peculiaridades de carácter financiero y presupuestario que supone la existencia del Concierto Económico, como a la previsión de modificaciones en el nivel de competencias y/o servicios de la Comunidad en relación con el Estado y con los Territorios Históricos como consecuencia de lo dispuesto en el Estatuto de Autonomía.

En este marco se encuadra el Proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2006, cuyo texto articulado sigue la sistemática instaurada por las anteriores Leyes de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma y consta de cinco títulos, 32 artículos, seis disposiciones adicionales, cuatro disposiciones finales y cuatro anexos que lo complementan.

I. titulua, hamaika artikuluk osatzen dute, eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzeko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Jaurilaritzaren politika ekonomikoa taxutzen duen "erabaki bateratuen multzoaren" eskemaren barrutik, aurrekontu-baterakuntza zehazteko ezartzen duen irizpidearen isla zintzoa izan nahi du. Laburbilduta, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2006ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu (proiektuaren 1. artikulua), hau da, honako hauek onartzen ditu: Administrazio Orokorraren diru-sarrera eta gastuen egoera-orriak (2. artikulua), erakunde autonomiadunena (3. artikulua), zuzenbide pribatuko erakunde publikoen zuzkidurak (4.etik 8.eraingo artikulua) eta sozietate edo balztzu publikoena (9. artikulua). Halaber, heldu egiten zaio berme ematearen eta birfinkapenaren gaiari (10. artikulua), eta zorpetze- eta finantza-eragiketen mugak ezartzen ditu (11. artikulua). Titulu hau I. eta II. eranskinetan ematen den informazioarekin osatzen da, hots, I.ean 2006ko ekitaldiaren osteko ekitaldietako konpromiso-kredituak jasotzen dira, eta II.ean balztzu publikoen ustiapen- eta kapital-aurrekontuetan aurreikusitako baliabide eta zuzkidurak.

Lehenagoko beste testu artikuludun batzuek direla-eta, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoak Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitateari esleitutako aurrekontu-zuzkidurari eusten zaio (2.3 artikuluan), 3/2004 legearen (otsailaren 25eko Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen) arabera osatuta. Halaber, ezarri egiten du, batetik, aldaketak egin daitezkeela, finantza-eragiketa osagarrien bitartez, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate edo balztzu publikoen zorpetze-baldintzetan, baina, aldaketa horiek formalizatu baino lehenago, Ogasun eta Herri Administrazioaren baimena behar dela; eta, bestetik, sailaren baimena beharko dela, baita ere, emaitzen egonkortasuna bermatzeko, ziurtatzeko edo estaltzeko egin nahi den beste edozein eragiketa gauzatzeko (11.3 artikulua).

Berritasun aipagarri gisa, aurtengo aurrekontuetan ez da sartu Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen aurrekontuaren onarpena; izan ere, erakunde hori iraungi egin da erakunde autonomiadun gisa 2005eko urriaren 1etik, 240/2005 dekretuaren indarrez (irailaren 13ko dekretua, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean integraztekoa). Dekretu hori 3/2004 Legearen (otsailaren 25eko legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena) hamargarren xedapen gehigarria garatzeko ematen da, eta 2005-2006 ikasturterako integrazio hori gauzatzeko agindua ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari.

Berme-emate eta indartze-kontuetarako, eta Jaurilaritzak enpresa txiki eta ertainen alde aurrera daraman politikaren barruan, elkarren bermerako sozietateek emandako abalak indartzeko eta Luzaro E.F.C. sozietateak emandako maileguak bermatzeko gaikuntza emango diogu administrazioari, enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko laguntze aldera erakunde horiekien izenpeturiko lankidetzeta-hitzarremen esparruan (10.2 artikulua). Bilbao Exhibition Center-i abalako emateko aukera ere jaso dugu (10.3. artikulua), autonomia-erkidego honetarako estrategikoa delako.

II. titulua, "Gastuen egoera-orria" izeneko titulu honek 15 artikulua ditu, lau kapitulutan banatuta ("Kreditu-motak. Berezitasunak", "Kredituen arauak. Aldaketak", "Lansarien eta hartzeko pasiboaren arauak" eta "Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua"). Euskadiko Diruegitamuen Jaurpideei buruzko abenduaren 20ko 31/1983 Legeak aurrekontuak antolatze modua ezarri zuen, eta, ondoren, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginak (testu hori irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) berretsi egin zuen, eta, hemen, II. titulua jarraitu egiten dio modu horri.

El Título I, integrado por once artículos, pretende ser el fiel reflejo de lo que el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece como criterio definitorio de la integración presupuestaria, en su esquema de "conjunto integrado de decisiones" que configura la política económica del Gobierno. En resumen, procede a la aprobación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2006 (artículo 1 del Proyecto), es decir, de los estados de ingresos y gastos de la Administración General (artículo 2) y los organismos autónomos (artículo 3) y de las dotaciones de los entes públicos de derecho privado (artículos 4 a 8) y de las sociedades públicas (artículo 9). Asimismo, se aborda la prestación de garantías y el reafianzamiento (artículo 10) y se establecen los límites de las operaciones de endeudamiento y financieras (artículo 11). Este Título se completa con la información facilitada por el Anexo I (créditos de compromiso para ejercicios posteriores al 2006) y el Anexo II (dotaciones y recursos estimados en los presupuestos de explotación y capital de las sociedades públicas).

En relación con anteriores textos articulados, se mantiene la inclusión de la dotación presupuestaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea (artículo 2.3), conformada de acuerdo con la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, y también se repite el establecimiento del requisito de la autorización del Departamento de Hacienda y Administración Pública con anterioridad a su formalización para toda modificación en las condiciones de endeudamiento de los entes públicos de derecho privado y sociedades públicas a través de operaciones financieras accesorias y para las operaciones tendentes a garantizar la estabilidad en sus resultados o al aseguramiento o cobertura de los mismos (artículo 11.3).

Como novedad más significativa, ya no se incluye la aprobación del presupuesto del Instituto Vasco de Educación Física que ha sido extinguido como organismo autónomo con efectos de 1 de octubre de 2005 en virtud del Decreto 240/2005, de 13 de septiembre, de integración del Instituto Vasco de Educación Física en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, dictado en desarrollo de la Disposición Adicional Décima de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, que establece el mandato a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco de proceder a dicha integración para el curso 2005-2006.

En materia de prestación de garantías y reafianzamiento se contempla la habilitación a la Administración en el marco de la política del Gobierno de apoyo a las pequeñas y medianas empresas para el reafianzamiento de los avales otorgados por las Sociedades de Garantía Recíproca, así como para garantizar los préstamos concedidos por la sociedad Luzaro E.F.C., todo ello en el marco de los convenios de colaboración que se suscriban con las referidas entidades con el fin de facilitar la financiación de las PYMES (artículo 10.2). Asimismo, se introduce la posibilidad (artículo 10.3) de otorgamiento de avales a Bilbao Exhibition Center, dado su carácter de actuación estratégica para esta Comunidad Autónoma.

El Título II, denominado genéricamente "El Estado de Gastos", agrupa 15 artículos en cuatro Capítulos que bajo los epígrafes de "Tipos de créditos. Especialidades", "Régimen de los créditos. Modificaciones", "Régimen de Retribuciones y Haberes Pasivos" y "Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados", sigue en su ordenación la sistemática instaurada por la Ley 31/1983, de 20 de diciembre, de Régimen Presupuestario de Euskadi, y confirmada por el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre.

Lehenengo kapituluak (12.etik 17.eraingo artikuluek) ordainketa-kredituei buruzko zenbait berezitasun jasotzen du. Horrela, bada, 12. artikulua, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategineko (testu hori irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) 24.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat, kreditu handigarritzat jotzen ditu lege-proiektuaren III. eranskinean zehazten diren kredituak, eta hor adierazten da kreditu horiek handitu ahal izango direla, aurreko ekitaldietako eskema berbera erabiliz, betiere nahitaez aitortu beharreko obligazioen zenbatekoraino. Kapitulu honetan, halaber, ezartzen da zein diren zabalkuntza hori egiteko behar diren finantza-baliabideak.

Aurrerantzean ere, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren barruan erabakitako Inbertsio Publikoari Finantza-laguntza emateko Esparru-plana betetzetik eratorritako finantzazio-beharrak diruzaintzako gerakinen kontura guztatu ahal izango direla aurreikusten da.

13. artikulua, konpromiso-kredituen gaian, Jaurlaritzaren Kontseiluari gaikuntza ematen dio konpromiso-kreditu berriak onartzeko edo lehendik baimendutako zenbatekoa muga bateraino handitzeko. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta bere erakunde autonomiadunen aurrekontuko ordainketa-kredituen guztizkoaren %5 izango du muga. Hala ere, muga hori ez da aplikagarria izango Administrazioaren jardun onerako behar diren ondasunen edota zerbitzuen ohiko erosketetan, Administrazioaren jardun onerako zerbitzu osagarrietan edo behar bezala justifikatutako atzerapenetan. Gainera, 13. artikulua honek Jaurlaritzaren Kontseilua konpromiso-kredituak sortzeko baimena emateko gaitzen du, baldin eta 2006ko ekitaldian ekarpenak egiten badira edo ondorengo ekitaldietara ere ondorioak luzatzen dituzten ekarpen-konpromiso finkoak agertzen badira. Azkenik, Ogasun eta Herri Administrazio Saila gaitzen du aurreko urteetan sorturiko zenbait konpromiso-kredituren zenbatekoa egokitzeko, eta hauexek dira, hain zuzen ere, aipatutako konpromiso-kredituak: lankidetzeta-hitzarmenen ondoriozkoak; edo finantza-eragiketen eraketarekin zerikusia duten kontratuen ondoriozkoak; edo urteko zenbatekoa korritu-tasen edo antzeko adierazleen gorabeheren menpe duten arriskuak estaltzearekin zerikusia dutenak.

Aurreko ekitaldietan bezala, langileriaren kredituei (14. artikulua) nahiz funtzionamendu-gastuetarako kredituei (16. artikulua) eta kapital-eragiketa eta eragiketa arruntentzako diru-laguntza eta transferentziei (17. artikulua) dagokienez, zabaldu edo estutu egiten dira, ekitaldi honetarako bakarrik, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (testu hori irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) 22. eta 66.3 artikuluetan ezartzen diren mugak, eta hori, oro har zein programa jakin batzuetarako. Jokabide hori aurrekontu-kudeaketa errazteko hartu da.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bertako erakunde autonomoetako behin-behineko langileen, funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen aurrekontu-plantillak onartzen dira (15.1. artikulua), Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legean aurreikusitakoaren arabera. Aurrekontuetako "Langileei buruzko eranskinean" azaltzen dira.

Ildo horretan, aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren eta bere administrazio-erakunde autonomiadunen aurrekontu-plantillak duen izaera mugatzailea, halako izaera ematen baitio Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (testu hori irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) 22. artikulua. Eta mugakizun hori, hain zuzen ere, aipatutako erakunde funtzionario, behin betiko eta aldi baterako lan-kontratuko langileen lanpostuen kopuru osoari dagokio (15.2 artikulua).

El Capítulo Primero (artículos 12 a 17) contiene ciertas especialidades relativas a diferentes créditos de pago. Así, el artículo 12, de conformidad con el artículo 24.1.b) del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, procede a la calificación de ampliables, hasta una suma igual a las obligaciones cuyo reconocimiento sea preceptivo, a los créditos que se detallan en el Anexo III del Proyecto de Ley, siguiendo el esquema de los ejercicios anteriores, y a establecer los medios de financiación para llevar a cabo dicha ampliación.

Asimismo, se mantiene la previsión de que las necesidades de financiación derivadas de la ejecución del Plan Marco de Apoyo Financiero a la Inversión Pública, acordado entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, podrá llevarse a cabo con cargo a remanentes de tesorería.

El artículo 13, en relación con los créditos de compromiso, mantiene la habilitación al Consejo de Gobierno para aprobar nuevos créditos de compromiso o aumentar el importe de los autorizados hasta un determinado límite, el 5% del importe total de los créditos de pago del presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus organismos autónomos, respectivamente. Dicho límite, sin embargo, no será de aplicación cuando se trate de adquisiciones habituales de bienes o servicios necesarios para el normal funcionamiento de la Administración o complementarios del mismo o de retrasos debidamente justificados. Además, el citado artículo también faculta al Consejo de Gobierno para autorizar la creación de créditos de compromiso en el supuesto de que se produzcan durante el ejercicio 2006 aportaciones o compromisos firmes de aportación que extiendan sus efectos a ejercicios posteriores. Por último, faculta al Departamento de Hacienda y Administración Pública para adecuar el importe de los créditos de compromiso generados en ejercicios anteriores en virtud de los convenios de colaboración o contratos relacionados con la instrumentación de operaciones financieras o de cobertura de riesgos cuyo importe anual esté en función de la evolución de los tipos de interés o de otros indicadores similares.

Al igual que en anteriores ejercicios, en lo que respecta a los créditos de personal (artículo 14), los créditos para gastos de funcionamiento (artículo 16) y los créditos para transferencias y subvenciones para operaciones corrientes y de capital (artículo 17), se aumentan o restringen, con vigencia exclusiva para este ejercicio, las limitaciones que se establecen en el artículo 22 y 66.3 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, ya sea de manera genérica o para determinados programas, todo ello con el ánimo de facilitar la gestión presupuestaria.

Asimismo, se procede a la aprobación de las plantillas presupuestarias del personal eventual, funcionario y laboral de la Administración de la Comunidad Autónoma y sus organismos autónomos (artículo 15.1), que se relacionan en el "Anexo de personal" a los presupuestos, de conformidad con lo previsto en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Destaca, en este sentido, la consideración del carácter limitativo de la plantilla presupuestaria de la Administración de la Comunidad Autónoma y de los organismos autónomos administrativos, dispuesto por el artículo 22 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, como referido al total agregado de plazas de personal funcionario, personal laboral fijo y personal eventual y para el conjunto de dichas entidades (artículo 15.2).

Halaber, langileria-gastuetako zuzkidurek hazkunderik izan behar ez dutelako irizpide nagusia baztertu gabe, 15. artikuluan hortxe diraute eskumenak transferitzearen, organo eta zerbitzu berriak sortzearen, lege-mailako arauak aldarrikatzearen edo Gobernuak koiunturakoak ez diren plan, programa eta jarduera esanguratsuak onartzearen ondorioz lanpostu-zerrendetan eratoritzen diren aldaketek.

Titulu honetako bigarren kapituluak (18.etik 20.eraingo artikulua) kredituen erregimenaren aldaketa eta horien 2006. urteko berezitasunak artikulatzen ditu eta ez da asko aldatzen. Kredituen transferentzien arloan, irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak ezarritako araudi orokorrera igortzen gaitu 18. artikulua, Inbertsio Publikoari Finantza-laguntza emateko Esparru-planetik (Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartu zuen plan hori, 2002ko uztailaren 23an) eta Inbertsio Ekonomiko eta Sozialen Plan Berezitik eratorritako zenbait salbuespen kenduta.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, aurrerantzean ere, aurrekontuaren jarraipenerako eta kontrolerako beharrek hala eskatzen dutenean, bereziki lotuta dauden kredituak ezarri ahal izateko edo ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak berriz banatu ahal izateko baimena izango du. Kredituak berriz banatzea lotura-maila bereko kredituen artean zenbatekoak transferitzea da.

Era berean, sozietate edo baltzu publikoen aurrekontua aldatzeko malgutasunak dirau, betiere herri-sozietateen aurrekontuaren aldaketak badira. Eta aldatu dena da ezarri egin dela higiezin material eta ez-materialean guztira eginiko inbertsioen batuketak izaera mugatzaile duela oro har, Sprilur, S.A.k partaidetza duen baltzu publiko guztietarako. Gainera, Estatuarekin egiten den edozein hitzarmeni ere aplikatzen die irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 102. eta 103. artikuluetan jasotako hitzarmen-erregimena, baldin eta hitzarmen hauetan gehigarriko fondoak jasotzen badira hasiera batean gastu-egoeretan espero zirenekiko. Beraz, erregimen horrek ez du bakarrik balio elkarrekin inbertsio-egitasmoak egiteko.

Azkenik, Jaurilaritzaren Kontseilua gaitu egiten da gerorako konpromiso berriak onartzeko edo muga jakin bateraino onartutako konpromisoen zenbatekoa, hasieran erakundeen multzorako baimendutako zenbateko orokorraren %15, igotzeko.

Berritasun gisa, aurreko ekitaldien aldean, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari baimena ematen zaio, bidezko gertatzen diren egokitzapen teknikoak egin ahal izan ditzan, ustiapen eta kapitaleko aurrekontuetan beharrezko eraldaketak txertatzeko. Eraldaketa horiek, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginarekin (testu hori irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) bat etorritik, ez dute ekarriko aurrekontuaren aldaketarik. Baina, nolana ere, kontabilitate-eraldaketak eragiten dituzte, eta aldaketa horiek beren doitzeko korrelatiboa izan behar dute erakunde horien aurrekontuetan.

Hirugarren kapituluaren gaia (21.etik 25.eraingo artikulua) lansarien eta hartzeko pasiboen erregimena da. Kapitulua horretan aurreikusten da 2005eko lansarien eta pensioen aldean gehienez ere ehuneko biko hazkuntza izango dela. Aurreko urteetan bezala, oraingo honetan ere funtzionarioen eta Euskal Herriko Poliziaren langileen destino-osagarria jasotzen da (21.6 eta 22.1 artikuluetan, hurrenez hurren).

No obstante, sin perjuicio de mantener como criterio general el crecimiento cero de las dotaciones para gastos de personal el artículo 15 contempla, como excepción, aquellas modificaciones en las relaciones de puestos de trabajo derivadas de la efectiva realización de traspasos de competencias, la creación de nuevos órganos y servicios, la promulgación de normas con rango de ley o la aprobación por el Gobierno de planes, programas y actuaciones significativas de carácter no coyuntural.

El Capítulo Segundo (artículos 18 a 20) de este título, que articula solamente el régimen de modificaciones de crédito y sus especialidades para el año 2006, no varía en gran medida. En relación con el régimen de transferencias, el artículo 18 se remite a la regulación genérica del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, salvo en relación con algunas especificidades derivadas del Plan Marco de Apoyo Financiero a la Inversión Pública, aprobado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas el 23 de julio del 2002, y del Plan Especial de Inversiones Económicas y Sociales.

Se mantiene la autorización al Departamento de Hacienda y Administración Pública para que, cuando las necesidades de seguimiento y control presupuestario lo requieran, pueda establecer créditos especialmente vinculados o proceder a la redistribución de créditos de pago y de compromiso, entendida esta redistribución como el traslado de importes entre créditos correspondientes al mismo nivel de vinculación.

Asimismo, se conserva la flexibilización presupuestaria cuando se trate de variaciones de presupuestos de las sociedades públicas, estableciéndose el carácter limitativo de la suma de las inversiones en inmovilizado material e inmaterial a nivel global para el conjunto de todas las sociedades públicas participadas por Sprilur, S.A. y se extiende el régimen de convenios establecido por los artículos 102 y 103 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, a cualquier convenio con el Estado por el que se perciban fondos adicionales a los inicialmente previstos en los estados de gastos y no únicamente para el caso de la realización conjunta de proyectos de inversión.

Finalmente, se habilita al Consejo de Gobierno para aprobar nuevos compromisos futuros o aumentar el importe de los autorizados hasta un determinado límite, el 15% del importe global de los inicialmente autorizados para el conjunto de entidades.

Como novedad, en comparación con ejercicios anteriores, se autoriza al Departamento de Hacienda y Administración Pública para proceder a realizar las adaptaciones técnicas que resulten oportunas para incorporar aquellas variaciones en los presupuestos de explotación y capital que, de conformidad con el artículo 97 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, no supongan una modificación presupuestaria pero que, sin embargo, dan lugar a variaciones contables que deben tener su correlativo ajuste en los presupuestos de dichas entidades.

El Capítulo Tercero (artículos 21 a 25) se ocupa del régimen de retribuciones y haberes pasivos, y contempla un crecimiento global no superior al dos por ciento con respecto a las retribuciones y pensiones establecidas en el ejercicio 2005. Al igual que en años anteriores, se incluye la cuantía anual del complemento de destino tanto del personal funcionario (artículo 21.6) como del personal de la Policía del País Vasco (artículo 22.1).

21.2 artikuluan zehazturik dagoen langileen aparteko ordainsariei urteko beste kopuru osagarri bat gehituko diegu (21.3 artikulua). Bakoitzaren lanpostuko osagarriaren arabera ordainduko dugu. Bete beharreko arauetan ikusi behar hilabeteka nola banatu. 21.11 artikuluan jartzen duenez, berriz, 21.2 artikuluan zehazturiko langileen guztizko soldatarako erabakitzen den goiaren parekoa izan behar dute lan-kontratukoek ere. Eta 22.1 artikuluan jartzen duenez, azkenik, Ertzaintzako langileen aparteko ordainsariari beste kopuru bat gehituko diegu, funtzionario bakoitzak lanpostu-mailaren arabera zein lanpostu-osagarri jasotzen duen gorabehera.

Beste aukera bat ere jaso dugu (21.5 artikulua): dela lanpostuaren edukia aldatu egin delako, dela programa bakoitzari atxikitako langile-kopurua aldatu egin delako edo dela programa bakoitzari jarritako helburuen betetze-mailarengatik, derrigorrezkoa bada, baliteke ordainsari osagarriak aldatu behar izatea, baina kasu berezietan eta salbuespen modura.

Hainbat gauza aurreikusitako dugu (21.12 artikulua) erretiro-planak eta taldekako aseguru-hitzarmenak hornitzeko autonomia-erkidegoko administrazio orokorrean, administrazio horretako erakunde autonomiadunetan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan eta sozietate publikoetan. Aurreikuspen horiek, izan ere, Toledoko Itunaren eraberritzearen eta Legegintzako 1/2002 Errege Dekretuaren (azaroaren 29ko dekretu horren bidez onartu zen Pentsio Planak eta Funtzak Arautzeko Legearen testu bategina) arabera dira.

Halaber, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta baltzu publikoetako zuzendaritzakideei dagokienez, 24. artikuluan idazketa zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta baltzu publikoetako zuzendaritzakideen estatutu pertsonala arautzen duen otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak ezartzen duenera egokitu da; hortaz, kalteak ordaintzeko klausulak adosteko debekua ez da jasotzen artikuluan, aipatutako dekretuan jasota dago-eta.

Titulu honen laugarren kapitulua (26. artikulua) IV. eranskinak osatzen du, eta, Heziketaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, itunpeko ikastetxeen modulu ekonomikoa ezartzen du; izan ere, lege organiko horrek Aurrekontu Orokorren urteko legeetara igortzen gaitu, ikastetxe horiei laguntzeko erabili behar diren fondo publikoen guztizko zenbatekoa zehazteko.

III. tituluak diru-sarreraren egoerari buruzko artikulua ditu. Horrela, azaroaren 25eko "Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremanei" buruzko 27/1983 Legearekin bat, 27. artikuluan foru-aldundiek 2006. urterako egin beharreko ekarpen orokorra zehazten da. Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2005eko urriaren 17ko saioan urriaren 4ko 6/2002 Legearen bidez onartu berria den baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorreari egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiaren arabera onartutakoak eta 2002-2006 aldiari aplikatzekoak dira ekarpen horiek. Ondoren, 28. artikuluan, lurralde historiko bakoitzeko ekarpen-koefizienteak jasotzen dira, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onartuak hauek ere, aipatutako metodologiaren arabera.

